

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, LAUDIOKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2014.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onartu zuen joan den urriaren 27an Laudioko Udalaren eta Laudioko Udal Euskaltegia bere erakunde autonomoaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa.

Txostenak ondorioztatu du bai Udalak bai erakunde autonomoak zuzentasunez bete dutela 2014ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia; alabaina, akatsak azaleratu dira Administrazioako Kontratazioaren atalean (kalegarbiketa kontratua alkateak esleitu izana, Udalbatzak esleitu beharrean, eta gas natural eta argindarraren hornidura zuzenean esleitu dira).

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du, nahiz Udalari dagokionez zenbait doiketa azaleratu diren, Diruzaintza Geldikin Erabilgarria 1,7 mila euroan gehitu arazi dutenak. Gainera, Udalak Geldikin honetatik 3,2 milioi euro deduzitu ditu 2008, 2009 eta 2011ko FOFELen likidazio negatiboen kontzeptuan, Udalaren balioespenaren arabera kalkulatu direnak. AFAk ez du zorra toki-erakunde bakoitzaren arabera xehatzen eta ez du egindako dedukzio guztien banakako aplikazioa arautu; honenbestez, ez dakigu zein den Udalak kontzeptu honen izenean erregistratu beharreko pasiboaren zenbatekoa.

Finantza egoerari dagokionez, Epaitegiak ondorioztatu du Udala kaudimen ekonomiko egoeran dagoela, gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinak duen maila esanguratsua ikusita, eta ez duela zorrik. Udalaren autofinantzaketa mailak egonkor eutsi dio 2012-2014 hirurtekoan zehar eta 2014ko aurrezki gordinak sarrera arrunten % 9 egin du.

Udalak 2014an aurrekontuaren egonkortasun eta zor publikoaren helburuak (ez du zorrik) eta gastuaren araua bete ditu.